

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

237

AGINDUA, 2024ko abenduaren 20koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetzaren eta Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritzaren zorra geroratzeko eta zatikatzeko eskumena Zerbitzu Orokorren zuzendariari eskuordetzan ematea.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako desegokiro jasotako prestazio ekonomikoak itzultzeko betebeharren ordainketak borondatezko epean egiteko diru-bilketa kudeatzea, prestazio horiek erregulatzen dituen araudiaren arabera. Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikitako organismo autonomoa da Lanbide.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak desegokiro jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra deklaratzeko aldi horretan ematen duen ebazpen irmoaren ondoren, diruzaintza-zailtasun iragan-korrek izan eta ordaintzera behartuta dauden pertsonen zor horiek geroratzeko edo zatikatzeko aurkeztutako eskaerak izapidetu eta ebatzi behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Eskaera horien izapidetzea eta ebazpena Ogasun eta Finantza Saileko organoen eskumena da, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuak agintzen duenaren arabera (Finantza Politikako eta Aurrekontu Sailburuordetzako titularrarena edo Finantza Politikako Zuzendaritzarena, bermeak ematea beharrezkoa den edo ez kontuan hartuta).

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 9. artikuluan jasotzen du oinarritzko izaera duela eskumenak eskuordetzeko araubide juridikoak, zeina, administrazio honi dagokionez, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean baitago araututa.

Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 25.1 artikulua hau aurreikusten du: «Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko organoen titulartasuneko eskumenen egikaritzea eskuordetu ahal izango zaie Administrazioko beste organo batzuei, nahiz eta organo horiek hierarkikoki mendekoak ez izan. Salbuespen gisa, eta eskumen horiek bestela egikaritzeko ezintasunean oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoko euskal sektore publikoaren barruan dauden beste ente instituzionaletako organoei ere eskuordetu dakieke».

Artikulu horren beraren hirugarren apartatua hau xedatzen da: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko organo batek eskumenen egikaritzea eskuordetzen dionean Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein ente instituzionalen organoren bati, eskuordetza alde aurretik onartu beharko dute organo eskuordetzailea zein organo eskuordetzaduna mende dute organoek, horrelakorik badago».

Gainera, arau horren seigarren apartatua ezartzen du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar direla, bai eskumenen eskuordetzeak, bai horien errelokazioak, eta informazio horrek beti egon beharko duela irigarri sail eta organo eskuordetzailearen eta eskuordetzadunaren webguneetan.

Bestalde, eskuordetzaz baliatuz ematen diren administrazio-egintzek eta -ebazpenek adierazi beharko dute eskuordetzaz ematen direla; argitalpen ofizialaren zenbakia eta data aipatu beharko dute, eta organo eskuordetzaileak emantzat joko dira (25.7 artikulua).

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoko zuzendari nagusiak (Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago Lanbide) Ogasun eta Finantza Sailari jakinarazi dio, ezen, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen babesean ematen diren prestazio ekonomikoak direla-eta, aurreikusita duela prestazio horiek jasotzen dituzten pertsonen 4.000 itzulketa-ebazpen baino gehiago jakinaraztea, eta horrekin, zalantzarik gabe, nabarmen areagotuko direla zor horien ordainketa geroratzeko eta zatikatze eskaerak. Eskaera horiek areagotzeak eragin negatiboa izan dezake diru-bilketarako prozedurak eduki behar duen arintasunean eta efizientzian. Hori dela eta, erakunde autonomoko zuzendari nagusiak adierazi du egokia litzatekeela eskumen horiek Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari eskuordetzea, zeinak Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak egikaritzeko bailituzke.

Beraz, badira zenbait arrazoi gomendatzen dutenak ez ditzatela Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunek bete aipatutako geroratzeko- eta zatikatze-eskaerak ebazteko eskumena eta horrekin erlazionatutako beste kudeaketa-funtzio batzuk, baizik eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak, kudeaketa arruntetik gertuago dagoen organoa delako eta behar adina langile dituelako eskaerak izapidetzeko (bai kopuruz, bai gaitasunez).

Horretarako, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 25.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak alde aurretik onartu du eskuordetza hori, organo horren mendekoa baita organo delegatua, eta agindu honetan aurreikusitakoaren arabera jardungo du.

Beraz, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak eskumenak eskuordetzeko aurkeztutako proposamena kontuan hartuta, eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 25. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ogasun eta Finantza Sailak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari zenbait eskumen eskuordetzea onartu du. Hain zuzen ere, Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetzarenak eta Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritzarenak diren eskumen batzuk, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak borondatezko aldi itzultzeko betebeharrak geroratzeko eta zatikatze eskaerak izapidetzeko eta ebazteko, bai eta haien aurka jartzen diren berraztertze-errekurtsoak ebazteko ere.

Arlo horretan Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetzari eta Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritzari dagozkien eskumenak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Orokorren zuzendariak egikaritzeko ditu eskuordetzaz, agindu honetan aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena.– Hemen azaldutako eskumenen eskuordetza gauzatzeko administrazio-egintzetan, eskuordetzaz ematen direla jasoko da, agindu hau eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren zer zenbakitan eta egunetan argitaratu den berriaz aipatuta, eta organo eskuordetza-emaileak emandakotzat joko dira.

Hirugarrena.– Organo eskuordetza-emaileak edozein unetan erreboka ditzake eskuordetzan emandako eskumen guztiak, Sektore Publikoaren Legeko 25.9 artikulua xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Gainera, une oro eskuragarri egon behar du aginduak organo eskuordetza-emailearen eta organo eskuordetzadunaren web-orrietan.

Bosgarrena.– Egintza honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezakete interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera, edo, bestela, berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, aurretik adierazi bezala zenbatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 20a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.